

GRADU AMAIERAKO LANA

# NUTRIZIOA ESPAZIOAN

FARMAZIAKO GRADUA

EHU/UPV

2021-2022 IKASTURTEA

**EGILEA:** JULENE SANCHEZ IBARROLA

**ZUZENDARIA:** BITTOR RODRÍGUEZ RIVERA

## AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	3
2. SARRERA .....	4
3. HELBURUAK.....	4
4. GARAPENA.....	5
4.1 METODOLOGIA .....	5
4.2 ESPAZIORAKO JANARIAREN BILAKAERA.....	5
4.3 ESPAZIO-JANARI MOTAK.....	8
4.4 ESPAZIORAKO ELIKAGAIEN ONTZIRATZEA .....	11
4.5 ELIKADURARAKO ERRONKA TEKNOLOGIKO ETA NUTRIZIONALAK .....	13
4.5.1 HEZUR GALTZEA.....	15
4.5.2 KALTZIOA .....	16
4.5.3 MUSKULUAK ETA HEZURRAK .....	17
4.5.4 ALDAKETA IMMUNOLOGIKOAK.....	19
4.5.5 HORMONA ALDAKETAK .....	20
4.5.6 URDAIL-HESTEETAKO FUNTZIOA .....	20
4.5.7 ESTRES OXIDATIBOA .....	21
4.5.8 NUTRIZIOAREN EGINKIZUN PSIKOSOZIALA.....	21
5. ONDORIOAK.....	22
6. BIBLIOGRAFIA.....	23

## 1. LABURPENA

Espaziorako elikagaiak zeregin garrantzitsua dute misio espazialetan. Nutrizio-sistemak asko egin du aurrera teknologia berriekin, eta elikagaiak soilik energia-iturri izatetik organoleptikoki atseginak izatera igaro dira. Hala ere, zientziak aurrera egiten jarraitu behar du iraupen luzeko hegaldi espazialak egin ahal izateko. Hori dela eta, elikagaiak gutxienez 3-5 urtez mantendu behar dira jangarri.

GrAL honen helburua tripulazio espazialen elikadura aztertzea da berrikuspen bibliografiko baten bidez, elikadura-sistemak programa espazial desberdinetan izan duen bilakaera kontuan hartuta. Era berean, elikagaien sailkapena eta nola ontziratzen diren aztertuko da. Halaber, gaur egun nutrizioari dagokionez espazioan dauden erronkak deskribatuko dira, hala erronka teknologikoak nola nutrizionalak ere.

Lehenengo programa espazialetan elikadura aztertzen hasi zen, baina bidaiak iraupen laburra zutenek, elikagaien beharrak ez zuen arazo larririk suposatzen. Hasieran janaria astronautei beharrezko mantenugaiak emateko moduan prestatzen zen, masa eta pisua mugatuz. Ezaugarri organoleptikoek ez zuten garrantzirik, eta horrek tripulazioak gogorik gabe jatea, edo okerrago, ez jatea eragiten zuen. Janaria taldeetan sailkatzen da ekoizpen moduaren arabera. Elikagaiak ontziratzeak ere zeregin garrantzitsua du; izan ere, elikagaiak babestu behar ditu degradatuak ez izateko. Elikadura-sistemak oinarrizko irizpide batzuk izan behar ditu, hala nola segurtasuna eta fidagarritasuna. Gainera, elikagai bakoitzak beharrezko mantenugai guztiak eman behar ditu osasun-arazoak saihesteko, kaltzio falta, besteak beste.

Ondorioz, elikadurarako espazio-teknologiak bilakaera handia izan du azken urteotan. Elikagaiak espaziora modu seguruan garraiatzea ahalbidetu du, bertan kontsumitu ahal izateko. Horretarako, ontziratze modu ugari daude eta horrek menuen aniztasuna baimentzen du. Azkenik, mikrograbitateak astronauten osasun egoeran eragiten du, eta horrek ezinbestekoa bihurtu egiten du nutrizio-sistema egoki baten beharra, eta behar izatekotan, mantenugai zehatzen administrazio farmakologikoa.

## **2. SARRERA**

Espaziorako elikagaiak garrantzi handia izan dute misio espazialetan, energia- eta mantenugai-iturri bakarra baitira. Hasiera batean, ezaugarri nutritibo eta energetikoak soilik hartzen ziren kontuan, baina gaur egun ezaugarri organoleptikoei eta psikologikoei ematen zaie lehentasuna, astronauten nutrizio-egoera hobea lortzen laguntzen baitute, gogo handiagoekin kontsumitzen dituztelako elikagaiak.

Azken hamarkadetan espazioan erabiltzen diren elikadura sistemak nabarmen aldatu diren arren, aurrerapenak ez dituzte bidaia luzeetako behar nutrizionalak asetzen. Ikerketen arabera, iraupen luzeko misio baterako elikadura sistema batek onargarritasun organoleptikoa, nutrizio-eraginkortasuna eta segurtasuna mantendu behar ditu 3-5 urtez, hau da, bideragarriak izan behar dira denbora horren barruan (1).

Gainera, elikagai-sistemaren egungo masa eta horren ondoriozko hondakinak nabarmen murriztu behar dira, proposatutako etorkizuneko ibilgailu espazialen bolumen eta karga erabilgarriaren mugetara egokitzeko. Elikagai-sistema desegoki batek misioaren arrakasta zaildu edota tripulazioaren errendimendua jaitsi dezake. Aeronautikaren eta Espazioaren Administrazio Nazionaleko (NASA) Elikagaien Teknologia Aurreratuko (AFT) ikertzaileek kontuan hartzen dituzte identifikatutako kezkak, hala ere, ikerketa kontu handiz planifikatuta badago ere, hutsune teknologiko batzuk daude oraindik (2).

Zientziaren eta teknologiaren garapenarekin, espaziorako elikagaien kantitatea eta kalitatea azkar hobetu dira. Desberdintasun morfologikoez gain, hegaldi espazialen dietak Lurraren antzekoak dira. Asko dira sistema espaziala aldatzen lagundu duten faktoreak, hala nola mikrograbitate ingurunekeo prozesu fisiologikoen azterketa, prozesatzeko teknologiaren eskuragarritasuna eta eskifaiaren gogobetetzea.

## **3. HELBURUAK**

GrAL honen helburua honakoa izango da: espaziora bidaiatzen duten tripulazio espazialen elikadurari buruzko informazioa lortzea eta aztertzea. Horretarako, hainbat puntu aztertuko dira. Hasteko espaziora bidaiatzen hasi zenetik eman diren misio guztien laburpen orokor bat emango da. Jarraian, janaria nola sailkatzen den eta ontziratzekeo zer metodo ezberdin dauden azalduko da. Bestetik, elikadura egokiaren eta misioaren arrakastaren arteko

erlazioari buruzko erronka ezberdinez hitz egingo da, erronka teknologiko eta nutrizionalak batik bat, hori baita gaur egungo kezka nagusia.

Beraz, aipatutako kontzeptuak ulertzeko helburu zehatz hauek aurkeztu egiten dira:

- Historian zehar eman diren misio espazial ezberdinetako janariaren garapena analizatzea.
- Espaziora eramaten diren elikagai ezberdinak nola ontziratzen diren aztertzea.
- Misio espazialean ematen diren elikadura erronkak aztertzea ikuspuntu teknologiko eta nutrizional batetik.

## **4. GARAPENA**

### **4.1 METODOLOGIA**

Lana burutzeko eta aurretik azaldutako helburuak lortzeko berrikuspen bibliografiko bat egin da nagusiki PubMed eta Scopus datu baseak tresna gisa erabiliz (<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/> eta <https://www.scopus.com/>). Web orrialdeak ere erabili dira neurri txikiago batean, batez ere irudiak bilatzeko. Erabilitako artikuluguztiak 2001 eta 2022. urteetan argitaratutakoak dira, gaurkotasuneko informazio bat lortzeko helburuarekin. Hala ere, 1977 eta 1999. urteetako bi artikuluguztiak erabili dira, urte horietan egin ziren misioen ezaugarriak azaltzeko.

Artikuluak bilatzeko gako-hitzak hurrengoak izan dira: "nutrition" eta "astronauts". Laguntza gisa "space", "food" eta "spaceflight" hitzak erabili dira artikuluak are gehiago iragazteko. Artikuluak onartzeko berrikuspen bibliografikoak eta entsegu klinikoak dituztenak hartu dira kontuan, eta artikuluak osotasunean ingelesez edo gaztelaniaz argitaratutakoak. Gainera, hizkuntza-murrizketa bat egin da, artikuluak hautatu egin baitira (ingelesez eta gaztelaniaz idatzitako artikuluak soilik erabili dira). Era berean, baztertu egin dira laburpena (abstract) baino agertzen ez zuten artikuluak, edo landu beharreko gaiari buruzko informazio egokia ematen ez zutenak, baita 2000. urtea baino lehenagoko artikuluak ere.

### **4.2 ESPAZIORAKO JANARIAREN BILAKAERA**

60. hamarkadatik, NASAk elikadura-sistema segurua eman die astronautei 4 eta 11 hilabete bitarteko misioetan. Hala eta guztiz ere, ura, biltegiatzea, bidaiaren iraupena eta elikagaiak prestatzeko gaitasuna mugatuak dira. Astronautek beren elikagaien eta edarien %20

hautatzen dute eta %80, berriz, elikagai estandar partekatuen multzo batetik dator. Hornitzeko ibilgailuak tripulaziorik gabeko ontziak dira eta bere gain hartzen ditu Nazioarteko Espazio Estazioa (ISS) hornitzeko eta hondakinak kentzeko eginkizunak. Urtean behin baino gehiagotan bidali egiten dira hauek espaziora, fruta eta barazki freskoekin, baita gai berezi erdi-iraunkor batzuekin ere. Astronautek jakinarazten dute entrega horiek onura psikologiko sakonak ematen dituztela (3).

Hasieran, NASAren janari-horniduraren sistema produktu bereziekin hasi zen. Produktu horiek ahalik eta tamaina eta bolumen txikiena izateko diseinatu ziren, Lur planetatik bidali ahal zen janaria limitazio ugari zituelako bi ezaugarri horiei dagokienez. Espaziora bidalitako janari hornidura aldatzen joan da teknologia berrien eboluzioari esker. Hona hemen programa espazial ezberdinetan eman ziren aldaketa eta berrikuntzak:

*Mercury* programa (1961-1963): *Mercury* proiektua NASAren erantzuna izan zen Sobietar Batasunaren une horretako lidergoaren aurrean, eta aukeratutako 7 astronautetatik 6k bakarrik parte hartu zuten.

Jatea mikrograbitarekin izandako hasierako esperientzia izan zen. Zientzialariek elikagaiak irenstea eta hauen xurgapena posiblea zela baieztatu zuten. John Glenn amerikarrak, 1962. urtean, lehen astronauta izan zen espazioan jaten, sagar-purea hain zuzen ere. Beraz, *Mercury* programa honi esker elikagaien irenstea, xurgapena eta digestioa grabitaterik gabeko ingurunean posiblea zela frogatu zen. Izan ere, *Mercury*-ren sei hegaldiek 2 egun eta 6 orduko iraupena izan zuten, beraz elikatzeko beharra ez zen arazo handia izan (1,3).

*Gemini* programa (1962-1966): *Gemini* programa Ameriketako Estatu Batuetako bigarren espazio-programa tripulatua izan zen, 1960ko hamarkadaren hasieran garatua. *Gemini* misioen garrantzian oinarritu zen astronauta estatubatuarrei aukera eman baitzien espazioan erosotasun gutxiko baldintzetan lan egiteko eta lo egiteko moduari buruz ikasteko. Hala ere, misio hauek ez ziren luzeak izan, eta elikaduran esperimendu zen arren, ez zuen kezka handirik sortu (4).

NASAK bidaltzen zituen elikagaiak liofilizatutako kubo moduan bidaltzen ziren (haragizkoak, frutazkoak...). Hauek ez zuten onarpen onik izan, eta horietako kubotxo asko Lur planetara bueltatzen ziren jan gabe.

*Apollo* programa (1961-1975): Misio honen helburua astronauten Ilargiratzea zen. Hau 1969ko uztailean gauzatu zen, Neil Armstrong, Edwin Aldrin eta Michael Collinsen

zuzendutako *Apollo 11* misioa lurreko satelitean lehen aldiz sartu zenean. *Apollo* misioek iraupen luzeagoak izan zituzten, hala nola, 195 ordukoa izan zen *Apollo 11*-ko bidaia, hau da, zortzi egunekoa. Beste bidaia guztiek iraupen antzekoak izan zituzten. Astronautak bat etorri ziren misioaren jarduerak kontsumitu beharreko elikagai mota eta kopurua ezartzen dituela esatean, eta, iraupen luzeko misioen kasuan, dieta eta elikagaien irenstea kontu handiz optimizatu beharko lirakekeela adierazi zuten (5,6).

*Gemini* programan erabilitako elikagai asko mantendu ziren, baina kaloria kantitatea igo egin zen, eta liofilizatutako elikagaiak aparte, termoegonkortutako eta berhidratagarriak diren elikagaiak ere sartu ziren. Hau dena garrantzitsua izan zen orain janaria bero jan ahal zutelako eta onarpena handiagoa zelako.

*Skylab* programa (1973-1979): *Skylab* Estatu Batuetako lehen estazio espaziala izan zen. Baldintza fisiologikoen eta esperimentalen ondoriozko nutrizio-zehaztapen zehatzek *Skylab*-eko elikagaien horniduraren konposizio kimikoaren azterketa sakona eskatzen zuten. Menuak, gutxienez, funtsezko mantengai guztiei Ikerketa Kontseilu Nazionalak gomendatutako kantitate dietetikoa emateko formulatu ziren, eta, gainera, kaltzio, fosforo, magnesio, sodio, potasio eta proteina konstanteak egunero irensteko. Oro har, astronautek programatutako menuetara mugatu ziren. Elikagaiak irensteko eta digeritzeko gaitasunak ez zuen eraginik izan luzaroko grabitaterik ezaren ondorioz. Aurreko hegaldietan gertatu ziren hezur eta muskulu aldaketak nabarmenagoak izan ziren *Skylab*-en (6,7).

Aurreko programei dagokienez, menuen palatabilitatea eta menu aldaketak handitu ziren. Astronautek 72 elikagai ezberdin zituzten aukeran, eta hauetako asko aluminiozko latetan ontziratu ziren bizitza baliagarria handitzeko. Elikagaiak izozteko, hozteko eta berotzeko ekipoa barne hartu zituen lehen programa espaziala izan zen.

*Shuttle* programa (1981-2011): 1981. eta 2011. urteen artean Estatu Batuetako astronautek garraiatzeko erabili zuten espazio-ibilgailu bakarra izan zen. Ontzi horiek karga handiak hainbat orbitatara eramateko, Nazioarteko Espazio Estazioan (ISS) modulu orbitalak hornitzeko eta jartzeko eta mantentze-lanak egiteko erabili ziren.

Lurraren antzekoagoa den elikadura diseinatu zen, elikagaien ontzien diseinuak eta aurreko hardware-elementuak eguneratuz. Elikagai barietatea 74 elikagai mota desberdinetara zabaldu zen eta 20 edari mota. Transbordadorearen menu estandarra 7 eguneko misio baterako diseinatuta dago. Astronautek onartutako zerrendako elikagaiak ordezkari ditzakete beren gustuak egokituz, edo beren menuak ere diseina ditzakete. Hala ere, menuak

dietistek berrikusten dituzte mantenugaien hornidura orekatua ematen dutela ziurtatzeko. Transbordadorean, janaria ibilgailuaren erdiko estalkian dagoen sukalde batean prestatzen da. Unitate modular honek ur-banagailu bat eta labe bat ditu. Ur beroa, hotza edo girokoa eman dezakeen ur-banatzaila elikagaiak berriz hidratatzeko erabiltzen da, eta sukaldeko labea elikagaiak zerbitzatzeko tenperatura egokian berotzeko erabiltzen da.

Labea aire behartutako konbekziokoa da, eta elikagaiak tamaina, forma eta material desberdineko ontzietan berotzen ditu. Lau laguneko talde batentzako bazkari osoa 5 minututan presta daiteke. Janaria berregin eta berotzeko 20-30 minutu gehiago behar dira. Bazkariko erretilua afaritarako plater gisa erabiltzen da. Erretilua astronautaren altzoari lotzen zaio uhal baten bidez, edo horman finka daiteke. Jateko tresnak aiztoa, sardexka, koilara eta janari-paketeak irekitzeko guraizeak dira. Astronauta askok esan dute poltsikoetan daramaten gauzarik garrantzitsuenetako bat guraizeak direla (8).

#### 4.3 ESPAZIO-JANARI MOTAK

Espaziorako elikagaiak zero grabitateko ingurune batean mantentzeko moduan ekoizten dira. Arina, trinkoa eta kontsumitzeko erraza izan behar du. Elikagai hauen alderdirik garrantzitsuena haien bizitza baliagarria da: egoera berean denbora luzez gorde ahal izatea hondatu gabe. Ontziak eta elikagaien diseinuak ere zeregin garrantzitsua dute. Janariaren diseinua hobetzea garrantzitsua da, ez bakarrik mantenugaien kontsumorako, baita astronauten kemena eta produktibitatea hobetzeko ere.

NASA-ren janari-horniduraren sistema produktu bereziekin hasi zen, eta produktu horiek ahalik eta tamaina eta bolumen txikiena izateko diseinatzen ziren gure planetatik kanpo atera zitekeen masa eta bolumen mugak zirela eta. Hala eta guztiz ere, pixkanaka teknologia berriek ahalbidetu dute janari espazialaren esperientzia ahalik eta etxekoena izaten.

Esan bezala, teknologiari esker, espaziora bidaltzen den janaria teknologia berriekin tratatu daiteke, horrela hainbat modutan ontziratuta eta paketatuz. Espazioko janari motak bereziki zazpi taldetan sailkatzen da:

- Berhidratatutako janaria: Elikagaiei ura kentzen zaie, errazago biltegitratzeko eta garraiatzeko helburuarekin. Prozesuari deshidratazioa edo liofilizazioa esaten zaio. Oloa, gazta, oilaskoa edo arroza bezalakoak elikagai berhidratatuen adibideak dira. Elikagai liofilizatu berhidratatuen erabilerak errehidratazio azkarraren, mantenugaien galera txikiagoaren, pisu arinaren eta kontserbazio errazaren abantailak ditu.



Liofilizazio-teknologia asko erabiltzen da fruta eta barazki freskoak prozesatzeko. Fruta eta barazkien usaina ahalik eta gehien kontzentratu dezake, eta jatorrizko C bitamina eraginkortasunez babestu. Astronautek ere espazioan edari errehidratatzaile mota asko jan ditzakete. Txinako *Tiangong 2* ontzian, tripulatzaileek lehen aldiz prestatu zuten tea espazioan. Edan aurretik, errehidratazioa ur-injekzioarekin osatzen da, eta gero berogailuaren bidez berotzen da (9).



1. irudia: Berhidratatutako noodle-ak oilaskoarekin (10).

- Elikagai termoegonkortuak: Elikagai termoegonkortuak elikagai espazialen menuaren zati handi bat dira. Beroketa bidez prozesatzen diren elikagaiak dira. Prozesuan mikroorganismoak hondatu egiten dira, baita entzimak eta patogenoak ere, beraz, honen ostean giro tenperaturan gorde daitezke. Arrain asko (hegaluzea, adibidez) termoegonkortuak izaten dira latetan. Janaria espaziora eramateko baliabide nagusia izan zen *Apollo* programan, baina desabantaila handia dauka: pisua.

Aluminiozko latekin alderatuta, poltsa malguak arinagoak dira eta biltegitratzeko espazioa aurrezten dute. Edukiaren ikuspegitik, elikagai termoegonkortuek likatasun handiagoa dute elikagai termoegonkortuen grabitaterik ezaren eta zaporearen eragina murrizteko, eta elikagai arrunten zaporea oso desberdina izan daiteke, eta horrek elikagaia ez hain zaporetsua eta irensteko zaila izatea eragin dezake (7).

- Tarteko hezetasuneko elikagaiak: Berhidratatutako janariaren antzera, hemen ere ur kantitate bat kendu egiten zaie, ez guztia. Ura partzialki kentzea lagungarria da elikagaiak bere testura eta propietate bigunak gorde ditzan. Gelditzen den hezetasun kopurua %20-30 tartekoa da, hau da, gatzarekin eta azukrearekin lotura kimikoen bidez lotutako ur kantitatea. Horrek elikagaien mikrobioak haztea eragozten du, eta inolako prestaketarik gabe kontsumitu daiteke. Honen adibideak udareak, mertxikak edo zezina dira (9).

- Elikagaiak forma naturalean: Mota honetakoak jateko prest daude eta poltsa malguetan ontziratzen dira. Elikatzeko modu naturalek fruitu lehorrak, litxarriak, gailetak, fruitu eta barazki freskoak, zereal-barratxoak eta abar barne hartzen dituzte. Barazkiek eta frutek bizitza erabilgarri laburra dute, baina laguntza psikologiko garrantzitsua dira eskifaientzat.

Elikagai hauek giza gorputzak behar dituen energia, bitaminak eta hezetasuna ematen dituzte, eskifaiei osasun mentala errazteaz gain. Baina elikagai naturalen pisua astuna izan daiteke eta ezin da luzaroan kontserbatu.



2. irudia: Txokolatezko golosinak forma naturalean (11).

- Irradiatutako elikagaiak: Irradiatutako elikagaiak erradiazio ionizatzaileek sortutako energia handiko izpien bidez esterilizatzen dira, hala nola X izpiak,  $\gamma$  izpiak edo abiadura handiko elektroien bidez. Irradiazio bidezko esterilizazioa hotzean lan egiteko teknologia berezia da, organismo bizidunak elikagaiak desizoztu gabe inaktibatu ditzakeena. Oso gutxi eragiten dio elikagaien kalitateari, eta zapora bakarri ahalik eta gehien eutsi diezaike. Irradiazioaren beste abantaila bat da produktua irradiazioaren aurretik ontziratuta daitekeela, ontziratze materiala eta ontziratze prozesua kutsatzeko aukera kenduta.

*Apollo*-ko astronautak izan ziren espazioan irradiatutako elikagaiak erabiltzen lehenak. *Apollo 12*tik *17*ra bitarteko misio guztiek ogi fresko irradiatua eraman zuten eta *Apollo 17*an, *Natick* laborategiarekin elkarlanean, urdaiazpiko sandwich bat sartu zen, ogi irradiatuarekin eta urdaiazpiko antzu irradiatuarekin egina. Gaur egun, irradiazio bidezko esterilizazio-teknologia liofilizazio-teknologiarekin konbinatuta erabiltzen da askotan (12).

Beraz, termoegonkortuak bezala, giro tenperaturan ere kontserba daitezke. Haragixerra eta indioilar ketua dira gaur egun erabiltzen diren produktu irradiatu bakarrak.

- Elikagai izoztuak: Janaria azkar izozten da, izotz-kristal handiak pilatu ez daitezten. Honi esker jatorrizko ehundura izaten laguntzen du, zapore freskoago bat lortuz. Erregosiak eta tartak dira honen adibide.
- Elikagai hoztuak: Elikagai hauek mantentzeko eta hondatu ez daitezten, ingurune hotz batetan edo tenperatura baxuetan gorde behar dira. Esnegaina eta gazta modu honetan biltegitatuta mantendu egiten da.

#### 4.4 ESPAZIORAKO ELIKAGAIEN ONTZIRATZEA

Elikagaien bizitza baliagarria bakterioak hazteko potentzialak, nutrizio-degradazioak eta kalitatearen degradazioak baldintzatzen dute. Ontziratzeak mikroorganismoen kutsadura ekidin dezake, elikagaiak arrisku fisikoetatik babestu eta kanpoko oxigenoaren eta uraren transmisioa kontrolatu.

Balantzaren bi mutur dira elikagai seguru, nutritibo eta onargarrien garapena eta ibilgailuaren baliabideen erabilera eraginkorra. Adibidez, beharrezkoa izan daiteke enbalaje-masa handiagoa izatea elikagaiak hezetasunetik eta oxigenotik babesteko eta elikadura-sistemaren beharrezko balio-bizitza betetzeko. Etorkizuneko misio espazialeterako ontzi egokiena elikagaietara migratzen ez duten material ez-toxikoz eginda egon beharko litzateke, mantenu gaien galera eragiten duten erreakzio kimikorik gabe. Ontziak saihestu egin behar du elikagaiak ura galtzea, oxigeno-trukea blokeatu behar du hondatzea saihesteko, argia blokeatu behar du nutriente fotosentikorren galera saihesteko eta mikroorganismoen kutsadura saihesteko (7).

Garraiorako erosoan izan behar du, arina, iraunkorra, elikagaiaren forma alda dezakeen indar fisikoari aurre egiteko gai izan behar du, beharrezkoa ez den bolumena sortu gabe eta hondakin gutxiago sortuz. Egungo misioetan, hondakin gehienak, ontziak eta janari-hondarrak barne, eskuz konprimitzen dira, zinta itsaskorrean biltzen dira eta hurrengo hornikuntza-ibilgailua iritsi arte biltegitatzen dira. Hurrengoak dira gaur egun elikagaiak ontziratze moduak:

- Metalezko lata: Metalezko latak ontziratze materialak, hala nola aluminioa, oztopo-propietate onak dituzte, elikagaien bizitza erabilgarria 3 urtera arte mantentzen dutenak. *Skylab* programan, elikagai gehienak aluminiozko latetan ontziritu ziren, 2 urteko bizitza baliagarria izateko. Ontziratze-teknologia hau gaur egun misio tripulatuatan erabiltzen jarraitzen da, hala nola Errusiak ematen duen nazioarteko

estazio espazialeko janaria. Ontzi honek hesi ona du, baina astuna ere bada. Iraupen luzeko hegaldi tripulatuaren misioetan, enbalaje astunak eta zaborra ezabatzeko zailtasunak direla eta, ontziratze modu hau ez da erabiltzeko egokiena (8).

- Berrerabiltzeko poltsa: Bolumena eta masa aurrezteko, plastiko malguko eta metalezko xaflekin egindako poltsak erabiltzen hasi ziren. Ontziratutako elikagai hauek giro-tenperaturan jar daitezke eta bizitza luzea dute. Hotz edo bero kontsumitu daiteke, eta hori erabiltzea eroso da eta kontserbatzeko behar den energia aurrezte ahalbidetzen du. Modu honetan ontziratutako produktuek elikagaien segurtasuna eta nutrizio-balioa berma dezakete. Ontziratze metodo honek potentzial handia du elikagaien testura sentzorialaren onargarritasunari eusteko 3-5 urteko biltegitze-aldian (13).
- Film jangarria: Film jangarrien materialek almidoiak, polisakaridoak, proteinak, koipeak eta material konposatuak izaten dira. Pelikula jangarriaren aplikazio-esparruek fruta eta barazki freskoak, haragia, produktu izoztuak eta laberatuak kontserbatzea eta janari lasterrean hauts aromatizatzailea ontziratzea da. Ontziratze jangarriaren pelikulak elikagaien zapora eta ehundura aldaketak saihesten ditu biltegitzean eta garraioan, gas, ur-lurrin, solutu eta lurrinen osagaien migrazioa eragotziz, elikagaien kalitatea bermatuz eta haien bizitza baliagarria luzatuz (13).
- Hesi handiko ontziak: *Gemini* misioetan (1965-1966), ur-lurrunezko eta oxigenozko hesi-propietate handiko ontziratze-material bat garatu zen. Oxigenoarekiko eta ur-lurrinarekiko erresistentzia handiak elikagaien zaporea babesten laguntzen du. Ohiko materialekin alderatuta, hesi altuko filmetarako material hauek hesi-efektu hobea dute oxigenoaren eta ur-lurrunaren aurka, eta ontziaren edukiaren egonkortasuna berma dezakete tenperatura altuko eta hezetasun handiko ingurune batean. Ontziratze material horiek elikagai azidoak, hezetasun ertainekoak eta elikagai deshidratatuak ontziratze erabil daitezke.
- Aplikatzeko aukera dituzten beste ontzi batzuk: Nanomaterialek aplikazio-ikuspegi zabala dute elikagaien ontziratze aeroespazialean, pisu arina, erresistentzia handia, hesi ona, funtzio anitza eta elikagaiak ontziratze beste ezaugarri batzuk sortzeko gaitasuna dutelako. Nanomaterialek hesi altua, sugarraren atzerapen handia eta egonkortasun termikoa emateko ezaugarriak dituzte, eta horrek elikagaien bizitza erabilgarria 3-5 urtera arte hedatzen lagun dezake.

#### 4.5 ELIKADURARAKO ERRONKA TEKNOLOGIKO ETA NUTRIZIONALAK

Espaziorako misioen arrakasta elikadura-sistemaren eskasiaren arabera eman daiteke; hala nola mantenugai baten edo gehiagoren urritasuna, kaloria gutxiegi hornitzea eta kontsumo eskasa, kontserbazio desegokia edo mantenugaien toxikotasuna, besteak beste. Gainera, gutxieneko nutrizio-baldintzak betetzeak urritasuna baino ezin du prebenitu; aldiz, optimizatutako sistema batek (fruta eta barazki eta konposatu bioaktibo elkartuak barne hartzen dituen sistema batek bezala) osasuna eta errendimendua sustatzeko ahalmena du. Marterako misioetarako elikadura-sistema garatzea askoz neketsuagoa da ilargiaren eta ISSren misioetarako baino. Bidaia luze horiek ISSrako bidaia baten antzekoa da, baina elikagai freskoen noizbehinkako entregarik gabe (14).

Lurrean hainbat elikadura-sistema dauden arren, oraindik ez da ezarri horiek hegaldi espazialen eskaerak asetzeko duen gaitasuna. Bestalde, kostuen eta ordutegien mugen barruan duten bideragarritasuna oraindik ez dago argi. Martera egiten diren bidaietan batez ere elikadura-sistema bat garatzeko erronka handiak nabarmentzen dira. Orain arte, elikadura-sistema bakar bat ere ez da diseinatu eta probatu. Beraz, janari espazialaren edozein sistemak oinarrizko irizpide batzuk bete behar ditu (15):

- Segurtasuna: Lehentasunezkoa da astronauten osasunerako. ISSren elikadura-sistemak prozesu eta proba luzeak egiten ditu gure planetan elikagai-intoxikazioen arriskua minimizatzeko.
- Egonkortasuna: Marterako misioetarako egungo diseinuek elikagaien sistemaren egonkortasuna eskatzen dute, gutxienez 5 urtez biltegituta egon ondoren. Hozkailuak eta izozkailuak erabili daitezkeen arren, ekipo hori kontuan hartu beharko da misioaren bolumen, masa eta potentzia-mugen aurrean.
- Baliabideak: Elikadura-sistema batek erabilitako baliabide guztiak eta sortutako hondakin-produktu guztiak (adibidez, hondakin-urak, paketeak, hondakin biologikoak...) hondakin onargarrien kantitate eta barietatearekin alderatzen dira. Misioaren planifikatzaileek, mediku eta osasun espezialisten ekarpenekin, osasun eta jarduera laguntzako sistemak zehaztuko dituzte (adib., elikadura, ariketa, arreta medikoa) ibilgailuen baliabideen eta misio handienaren mugen barruan.
- Barietatea: Elikagaien motak, ehundurak eta zaporeak barietatea gehitzen dute. Beharrezkoa izan daiteke sistemak konbinatzea menuaren nekea saihesteko.

Elikagai, osagai edo mantenugai-iturri perfektu batek ere ezin du elikadura-sistema oso bat eman.

- Fidagarritasuna: Sistema guztiak baliozkotu behar dira hegaldi espazialaren inguruko muturreko baldintza errealetan edo simulatuetan (adibidez, presioa, grabitatea, temperatura, erradiazioa). Bestela, espazioko ibilgailu batek sistemaren bat galtzekotan, emaitza zoritzarrekoa izango litzateke.
- Erabilgarritasuna: Elikadura-sistemak erraza eta azkarra izan behar du astronautek elikagaiak prestatzeko edo ekoizteko. Hasierako misioetako tripulazioak esplorazioan eta zientzian zentratuko dira, eta misio horietan, astronautek janaria prestatuko dute, batez besteko pertsona batek bere sukaldean egingo lukeen bezala. Idealki, astronautek solteko osagaiak erabiliz sukaldatuko lukete, baina espazio-ontziaren kontsiderazio teknikoek zaildu egiten dute egoera hori.
- Zaporea: Elikadura-sistema batek beharrezko irizpide guztiak bete ditzake, baina tripulazioko astronautek gustuko ez badute, ez da kopuru egokietan kontsumituko eta beraz, osasuna, errendimendua eta morala ez dira egoera egokietan mantenduko. Astronautek prest egon behar dute edozein misio irautean duen bitartean eskuragarri dauden elikagaiak prestatzeko eta kontsumitzeko. Lurreko gizakiek bezala, astronautek elikagai atseginak behar dituzte, batez beste pertsonak egunez egun kontsumitu nahiko lituzkeenak eta prestatzeko errazak eta azkarrak direnak (13).

Erronka nutrizionalei dagokionez, astronautekin lortutako esperientziak nutrizio-arazo ugari utzi ditu agerian oraindik ikertzen ari direnak epe laburreko eta luzeko misioetan. Espazioko hegaldietan grabitate-gabeziara egokitzeak dakartzan albo-ondorioek osasun-arrisku ugari eragiten dituzte. Bigarren mailako ondorio horiek aldaketak eragiten dituzte sistema muskulu eskeletikoan, immunologikoan, endokrinoan eta beste sistema fisiologiko batzuetan.

Iraupen luzeko misioetan, astronauten desnutrizio-arriskua irensten dituzten elikagaien kantitate eta kalitate desegokitik dator. Gaur egun, espazioan kontsumitzen diren elikagai gehienak bizitza erabilgarri mugatua duten elikagai prozesatu eta biltegitatuak dira. Erronka bat da elikagai espazial gehien kalitatea mantentzea 5 urteko epean. Elikagaiek lehen 2 urteen ondoren kalitatea galtzen badute, tripulazioak ez du nutrizio nahikorik lortuko 2 urte baino gehiagoko misio espazialeterako (16,17).

#### 4.5.1 HEZUR GALTZEA

Mikrograbitareari lotutako hezur-dentsitatearen murrizketa hezur-zeluletan izandako aldaketek eragindako hezur-birmoldaketaren desorekaren ondorio da. Lurrean egindako mikrograbitare simulatuaren azterketek frogatu zuten osteoblastoen, osteoklastoen, osteozitoen eta zelula ama mesenkimalen morfologia eta funtzioak aldatu egiten zirela, eta horrek iradokitzen du hezur-zelulek erantzun egiten dutela eta grabitate aldatuaren egoerara egokitzen direla, morfologia eta funtzioak aldatuz (18).

